

KALITATE ARLOKO BIKAINASUNEN POLITIKA



Politika honek gure bezeroen behar eta aurreikuspenak asebetetzea ahalbidetuko diguten oinarrizko printzipioak ezartzen ditu



Helburua

CONSTRUCCIONES Y AUXILIAR DE FERROCARRILES SA enpresako zuzendaritzek CAF Taldearen (aurrerantzean, CAF) baitan funtzionamendu homogeneoa izatea ahalbidetzen duten politika korporatiboak onartzeko eskumena dute gai jakin batzuen inguruan. Horretarako, beste hainbat neurri gain, printzipio eta irizpide orokorrak ezartzen dituzte.

CAFeko Jasangarritasun Politikak eta Ikuspegiak ezarritakoaren arabera, Politika honen helburua da gure bezeroen behar eta aurreikuspenak asebetetzea ahalbidetuko diguten oinarrizko printzipioak ezartzea kalitate, segurtasun, fidagarritasun eta eskuragarritasun handiko produktu eta zerbitzuak eskainita.

Irismena

Politikak CAF osatzen duten sozietate guztiengan du irismena Merkataritza Kodearen 42. artikuluko xedatutakoa betez CAFek lan egiten duen jurisdikzio guztietan. Era berean, CAFeko enplegatu guztientzat da aplikagarria.

CAFekoak ez diren partaidetutako sozietateen kasuan, Sozietatea saiatuko da mugak, printzipioak eta irizpideak Politika honen bidez ezarritakoekiko koherenteak izaten, kasu bakoitzean aplikagarria den legeriak xedatutakoa betez.

Oinarrizko printzipioak

Jarduteko oinarrizko printzipio hauek ditugu oinarri:

- Gure bezeroen behar eta aurreikuspenak asebetetzea, kontratu, lege eta araudi mailako eskakizunetaz harago joanda, kalitate handiko (segurtasuna, fidagarritasuna eta eskuragarritasuna biltzen ditu) produktu eta zerbitzuak emanda.
- Gure erakundeetan prozesuen arabera kalitatearen kudeaketa-sistemak ezartzea bezeroaren leialtasuna eta asebetetzea maximizatzeko, beste interes-talde batzuek emaitzak lortu ahal izatearekin bateratuta.
- Gure pertsonen eta kanpoko laguntzaileen artean bikaintasunaren kultura sustatzea, helburuak lortzeko lanean inplikaturik.
- Kudeaketa Eredu Korporatiboa definitzeko, ezartzeko eta etengabe hobetzeko lana zuzentzea CAFeko jasangarritasunerako oinarrizko tresna gisa.



Jarraipena eta kontrola

Batzorde Exekutiboari dagokio Politika hau betetzen dela zaintzea, Zuzendaritza sinatzailearen gidaritzapean. Horretarako, Kalitatearen Arlo Bikaintasunaren Politika Garatzeko Eskuliburu barruan jasotako beharrezko kontroleko beharrezko mekanismoak ezarriko dira.

Berrikustea eta eguneratzea

Politika honen helburua denboran aurrera jarraitzea da, Ekonomia-Finantza eta Estrategia arloko Zuzendaritzak (CFSO) aldian-aldian berrikusketa egiteko aukera alde batera utzi gabe.

Onarpena eta hedapena

Politika hau 2020ko abenduaren 18an onartu du Ekonomia-Finantza eta Estrategia arloko Zuzendaritzak (CFSO), eta data horretatik aurrera sartu da indarrean.

Politika hau Sozietatearen webgunean (www.caf.net) eta CAF Taldearen Atari Korporatiboan argitaratuko da interesdunek eta hartzaileek edukira sarbidea izan dezaten.



Data: 2021/093/24
Sinadura: Aitor Galarza
Ekonomia-Finantza eta Estrategia arloko Zuzendaritza (CFSO)